

**20/2024 TXOSTENA, URRIAREN 15EKOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AHOLKU
BATZORDEAREN BATZORDE IRAUNKORRARENA.****XEDEA: DEKRETU-PROIEKTUA, ETXEBIZITZA ETA HIRI AGENDA SAILAREN
EGITURA ORGANIKOA ETA FUNTZIONALA EZARTZEN DUENA.****I.- AURREKARIAK.**

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren 2. artikulua araber, sail hauek izango ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak:

- a) Kultura eta Hizkuntza Politika.
- b) Ekonomia, Lana eta Enplegua.
- c) Ogasuna eta Finantzak.
- d) Gobernantza, Administrazio Digitala eta Autogobernua.
- e) Industria, Trantsizio Energetikoa eta Jasangarritasuna.
- f) Segurtasuna.
- g) Hezkuntza.
- h) Etxebizitza eta Hiri Agenda.
- i) Osasuna.
- j) Ongizatea, Gazteria eta Erronka Demografikoa.
- k) Mugikortasun Jasangarria.
- l) Zientzia, Unibertsitateak eta Berrikuntza.
- m) Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa.
- n) Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza.
- o) Justizia eta Giza Eskubideak.

Halaber, 18/2024 Dekretuaren 13. artikulua honako egiteko eta jardun-arlo hauek esleitzen dizkio Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailari:



- a. Lurralde-antolamendua.
- b. Hiri-agenda.
- c. Lurzorua eta hirigintza.
- d. Etxebizitza; etxebizitzari lotutako lurzorua eta hirigintza.
- e. Arkitektura, eraikuntza, iraunkortasuna eta kalitatea eraikuntzan.
- f. Irisgarritasuna sustatzea.
- g. Kartografia eta informazio geografikoa antolatzea.
- h. Sailari atxikita dauden edo haren mendeko diren sektore publikoko entitateak zuzentzea, legeek eta erregelamenduek ezartzen dutenaren arabera.
- i. Legeek eta erregelamenduek ematen dizkioten gainerako ahalmenak.

Bigarren apartatuan ezartzen denaren arabera, sail honi atxikita daude: «Euskadiko Etxebizitza eta Lurra SA (Visesa)» eta «Alokabide SA» sozietate publikoak.

Zazpigarren xedapen gehigarriak ezartzen duenaren arabera, Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila iraungitako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko organo eta unitateek osatuko dute, Zerbitzu Zuzendaritzako eta Azpiegitura eta Garraio Sailburuordetzako organo eta unitateek izan ezik. Halaber, zerbitzu-zuzendaritza bat sortuko da Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailean.

Azkenik, azken xedapenetako lehenengoan esaten da sailburuek, 2024ko urriaren 31 baino lehen, beren sailei dagozkien erregelamendu organikoen proiektuak aurkeztuko dizkiotela lehendakariari, onarpena eman diezaien. Proiektu horiek gobernu-programan sailei izendatutako jardun-arlo bakoitzerako aurreikusitako helburuetara eta printzipio gidarietara egokitu beharko dira.

Hala, dagokion dekretu-proiektua egitea sustatu da, Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko, eta, horren bidez, 13. artikulua horretan esleitutako arloei dagozkien egitekoak gauzatu ahal izateko.

2024ko urriaren 1ean, sail horrek eskabide bat aurkeztu zuen, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak dekretu-proiektuari buruzko txostena egin zezan.

Prozedurak elektronikoki izapidetzeko Tramitagune aplikazio informatikoaren bidez izapidetutako espedientean (erreferentzia: DNCG_DEC_4607/24_09), honako agiri hauek agertzen dira:



- Dekretu-proiektuaren testua.
- Dekretu-proiektuaren arau-eragina aztertzeko memoria.
- Dekretua egiteko prozedura hasteko agindua eta proiektua alde aurretik onartzeko agindua.

Dekretu-proiektua honela osatuta dago: 14 artikulua, 2 xedapen gehigarri, xedapen iragankor 1, xedapen indargabetzaile 1 eta 4 azken xedapen.

II.- ESKUMENA.

Txosten hau Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak eman behar du, nahitaez, uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzekoak (aurrerantzean, 116/2016 Dekretua), 27. artikulua a) letraren 1. apartatuan ezarritakoari jarraikiz; izan ere, xedapen orokor bat da, eta xedapen orokor horren edukiak kontratazio publikoaren eremuari eragiten dio partzialki, eta Gobernu Kontseiluari dagokio hura onartzea.

Bestetik, eta 116/2016 Dekretuaren 30. artikulua 2. apartatuaren a) letraren arabera, Aholku Batzordeak duen aholkularitza-eginkizuna, egitura organikoak eta funtzionalak arautzeari dagokionez, Batzorde Iraunkorrak beteko du.

Irismenari dagokionez, dekretu-proiektutik sektore publikoko kontratuen araubide organiko eta juridikoari eragiten dioten esparruak soilik jasotzen dira txosten honetan; izan ere, kontratazio publikoaren gaineko eskumenak bakarrik dagozkie Kontratazio Publikoaren Aholku Batzorde honi.

III.- KONTSIDERAZIO JURIDIKOAK.

Jarraian, kontratazio publikoari buruzko proiektuaren artikulua aipatuko ditugu:

“3. artikulua.- Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburua.

[...]

3.- Era berean, Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburuari dagozkie honako egiteko hauek:

e) Sailaren kontratazio-organo gisa jardutea, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua 5.000.000 eurotik gorakoa den kontratuetan. Halaber, eta baldintza beretan, berari dagokio bitarteko propioei enkarguak egiteko eskumena, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren IV. tituluaren aurreikusitako bezala. [...]

6. artikulua.- Zuzendariak.

1.- Saileko zuzendaritza bakoitzarentzat berariaz ezarritako egitekoez gain, zuzendaritza guztiek egiteko hauek beteko dituzte, nor bere eskumen-eremuaren barruan eta kasuan kasuko sailburuordearen mende zuzenean eta hierarkian:

[...]

f) Kontratazioaren arloan, kontratazio-espedienteen memoriak eta oinarri teknikoen pleguak idaztea, kontratuei jarraipena egitea eta horiek zuzen egiten direla kontrolatzea eta obra-ziurtagiriak onartzea.

7. artikulua.- Zerbitzu Zuzendaritza.

1.- Zerbitzu Zuzendaritzari dagokio, Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren eskumenen esparruan eta Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburuaren mende zuzenean eta hierarkian, jardun-arlo hauek zuzendu eta koordinatzea: [...]

[...]

d) Kontratazioa.

2.- Horretarako, eskumen hauek izango ditu zuzendaritzak, indarrean dagoen araubide juridikoak agintzen dizkion egitekoez gain edo, oro har, saileko zuzendaritzari esleitura dauden eskumen komunez gain:

[...]

b) Sailaren jarduera ekonomikoa planifikatu eta kudeatzea, eta aurrekontua betearazteko faseak izapidetzea. Arlo horretan, sailburuaren eskumena deskontzentratzearen ondorioz, zerbitzuen zuzendaritari dagokio sailaren gastuak baimentzea, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko urteko aurrekontuen legean ezarritako zenbatekoa gainditzen ez badute. Zenbateko horretatik aurrera, Gobernu Kontseiluak baimendu behar du gastua, nahitaezko desjabetzei dagozkienak izan ezik, horiek sailburuordei baitagozkie. Hori guztia, ezertan eragotzi gabe kontratazioari lotutako gastuei aplikatu behar zaien erregulazioa, zeina artikuluko honen 3. apartatuan jasota baitago.

[...]

l) Sailaren eskumeneko kontratazio-espedienteen izapidetzea eta sailaren eremuko kontratazio elektronikoko prozeduren eta zerbitzuen kudeaketa eta zabalkundea zuzendu, koordinatu eta izapidetzea.

[...]

4.- Zerbitzuen zuzendaria sailaren kontratazio-organoa izango da, 5.000.000 euroko eta hortik beherako oinarrizko lizitazio-aurrekontua duten kontratuetan; halaber, eskuduna izango da, baldintza berdinetan, bitarteko propioei enkarguak egiteko, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren Araubidea ezartzeko uztaileko 27ko 116/2016 Dekretuaren IV. tituluan aurreikusitakoari jarraituz. Egiteko horiek betetzean, hari dagokio, muga berarekin, gastuak baimentzea.

Sailaren kontratazio-organoak sailaren kontratazio-mahaiaren laguntza izango du, eta mahai horrek Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 9. artikuluan aurreikusitako egitekoak beteko ditu.

5.- Zerbitzu Zuzendaritzak, euskara-unitatearen bidez eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren gidalerroei jarraikiz, saileko zuzendaritzek politika publikoetan eta sailaren ohiko jardunean euskararen erabilera normalizatzeko egiten duten lana koordinatu eta dinamizatuko du, eta, horretarako, egiteko hauek beteko ditu, besteak beste:

[...]

d) Aplikatu beharreko hizkuntza-irizpideak ezartzea sailaren jardun-arlo hauetan, besteak beste: hizkuntza ofizialak zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza moduan erabiltzea, itzulpen-irizpideak, langileen etengabeko prestakuntza orokorra, erregistroa, dirulaguntzak, argitalpenak, saileko kargudunen ageraldi publikoak, tresna eta aplikazio informatikoak, Interneta eta intraneta, errotulazio finkoa, oharrak eta aldi baterako oharpenak, iragarkiak, publizitatea eta kanpainak, izendapen ofizialak eta sailak antolatutako jendaurreko ekitaldiak. Era berean, kontratazio publikoan aplikatu behar diren hizkuntza-irizpideak ezarriko ditu, Gobernu Kontseiluak 2016ko apirilaren 26ko Erabakiaren bidez onartutako jarraibideekin bat etorriz (erabaki horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio publikoak egindako kontratuetan euskararen erabilera eta ezagutza txertatzeko printzipio orokorrak ezartzen dituzten jarraibideak onartzen dira).

14. artikulua.– Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzak.

1.- Lurralde historiko bakoitzean Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritza bat egongo da, eta, horren arduradun, lurralde-ordezkaritza bat, zeina Etxebizitzako sailburuordearen mende egongo baita organikoki, eta funtzionalki, berriz, sailburuordetza horretako zuzendarien mende. Honako hauek dira lurralde-ordezkaritzaaren egitekoak:

h) Epe hauek luzatzeari buruz ebaztea: sustatzaileei behin-behineko kalifikazioan obrak egiteko zehaztutako epeak, erosleei edo errentatzaileei etxebizitzak emateko epeak eta salerosketako eskritura publikoa egilesteko epeak; betiere, sailak sustatzen ez dituen babes publikoko etxebizitzetara dagokienez.”

116/2016 Dekretuaren 6. artikulua haxe ezartzen du: “Administrazio Orokorrean, hura osatzen duten sailen titularrak izango dira kontratazio-organismoak [...] salbu eta besterik xedatzen bada egitura organiko eta funtzionalari buruzko dekretuetan [...]”.

Ahalmen hori baliatuz, dekretu-proiektuak aurreikuspen hauek ditu:

- 3. artikuluko 3. apartatuko e) letraren arabera, Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburua da Sailaren kontratazio-organismoa 5.000.000 eurotik gorako oinarrizko lizitazio-aurrekontua duten kontratuetan. Era berean, eta baldintza berberetan, bitarteko propioei enkarguak egiteko eskumena izango du, zeinak Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 9ko 9/2017 Legearen 32. artikuluan araututa baitaude.

- 7. artikuluko 4. apartatuaren arabera, zerbitzuen zuzendaria sailaren kontratazio-organismoa izango da 5.000.000 euroko edo hortik beherako oinarrizko lizitazio-aurrekontua duten kontratuetan, eta eskumena izango du, baldintza berberetan, bitarteko propioei enkarguak egiteko. Egiteko horiek betetzean, hari dagokio, muga berarekin, gastuak baimentzea.



Batzorde honek beste batzuetan jakinarazi duen bezala, bitarteko propioei egindako enkargua lankidetzan publikoko modu bat da. Modu horretako lankidetzan publiko horrek kontratuzkoa ez den izaera instrumentala du, eta lizitazioari lotuta ez dauden edukiak ditu, nahiz eta obrei, zerbitzuei eta hornidurei buruzkoak izan (kontraprestazio ekonomikoaren eta kontratatzailearen profileen nahitaez agertu beharreko publizitatearen mende daude, eta kontratu-errekurtsoen auzitegietan errekurritzeko modukoak dira).

Kontratazio publikoaren eremua murrizteak lehiaren eta efizientziaren gaineko arriskuak ekar ditzakeenez, bitarteko propioei enkarguak egin ahal izateko, arrazoitu egin behar da, eta alderdi hauek islatu, besteak beste: enkargua egiten duen entitateak ez daukala zuzeneko bitarteko nahikorik; enkargua jasoko duen entitatea egokiena dela formalki (helburu sozialaren egokitzapena) eta materialki (bitarteko egoki nahikoa duela), eta, halaber, kudeaketako efizientzia-arrazoiak daudela.

Halaber, egokitzen jotzen da enkarguak egiteko eskumena ematea proiektuaren artikuluetan adierazitako organoei, kopuru txikia delako eta horrek koordinazio, sinplifikazio, efizientzia eta eraginkortasun hobea dakarrelako egingo den kontratazio publikoari dagokionez.

Era berean, zuzendarien eskumenei buruzko 6. artikuluan ezartzen denez, zuzendariei dagokie, beren eskumenen esparruan eta dagokion sailburuordearen mende zuzenean eta hierarkian, kontratazio-espedituetan memoriak eta oinarri teknikoak agiriak idaztea, kontratuak behar bezala egiten direla kontrolatzea eta horien jarraipena egitea, eta obra-ziurtagiriak onartzea.

7. artikuluan 5. apartatuko d) letrari buruz, Saileko edozein eremutan euskara sustatzeko eskumenari dagokionez, aipatu behar da kontratazioaren eremuan eskumen hori garatu behar dela, Gobernu Kontseiluak 2023ko ekainaren 6an onartu zuen eta indarrean den erabakiaren arabera –Erabakia, zeinaren bidez onartzen baitira hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrean eta hari atxikitako sektore publikoa osatzen duten gainerako entitate guztietan aplikatu beharrekoak–

.

Bada, aipatu berri den erabakian ezarritakoaren arabera, EAeko Sektore Publikoak egiten dituen kontratuetan kasu bakoitzean beharrezkoak diren klausulak sartuko dira: batetik, herritarrei bermatzeko entitateei exijitzen zaizkien hizkuntza-baldintza berberetan jaso ahal



izatea kontratu bidezko jarduerak edo zerbitzuak eta, bestetik, euskararen eta gaztelaniaren hizkuntza- ofizialtasunaren erregulazioa betetzeko.

Era berean, kasuan-kasuan kontratuaren helburua zein den, halako hizkuntza-betekizunak ezarriko dituzte administrazio-klausula partikularren agirietan. Alde horretatik, kontratuaren xedeak bete egingo du bere izaeratik eta zerbitzuaren titularra den entitatearen ezaugarriengatik aplikagarria zaion hizkuntza-legeria.

Orobat, herritarrei arreta ematea eskatzen duten edo xedea zerbitzu bat ematea duten kontratuetan, proportzionaltasun-printzipioa bermatu beharko da kontratuaren preskripzio teknikoetan, kasuan kasuko ezaugarrien, helburuaren eta hartzaileen arabera; kontratuaren bidez bete behar diren eginkizunei lotu beharko zaizkie, eta bitarteko propioen edo besteren bitartekoen bidez egiaztatu ahal izango ditu enpresak.

Kontratua betearazteko baldintzen artean, entitate kontratatzailearen eta adjudikaziodunaren arteko harremanetan erabiliko den hizkuntzari buruzko alderdiak azaldu ahal izango dira.

Alabaina, kontuan hartu behar da hizkuntza-klausulak ezin direla ezarri eskatzen diren kaudimen teknikoko betekizunen artean.

Erosketa publiko estrategikoa bultzatzean, gomendatzen da kontuan hartzea 116/2016 Dekretuaren 27.b) artikulua jasotzen duela Kontratazio Publikoaren Aholku Batzorde honek informatu egin behar duela kontratazio publikoan xede hauetarako neurriak hartzeko proposatzen diren mekanismoez: "Helburu sozialak, ingurumenaren arlokoak, helburu linguistikoak eta aukera-berdintasunari dagozkionak bermatzea, alor horietan eskumena duten erakundeek proposatuta".

Illo horretan, adierazi behar da indarrean jarri zela martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena. Horren bidez, euskal botere publikoek genero-berdintasunaren arloan jarduteko printzipio orokorrak ezarri dira, bai eta bizitzaren arlo guztietan emakumeen eta gizonen aukera- eta tratu-berdintasuna sustatzera eta bermatzera bideratutako neurri guztiak ere, eta, bereziki, emakumeen ahalduntzea, autonomia eta haien posizio sozial, ekonomiko eta politikoaren indartzea sustatzera bideratutakoak, egiturazko desparekotasuna eta sexuagatiko diskriminazio mota guztiak desagerrarazteko, emakumeen aurkako indarkeria matxista barne.



Testuinguru horretan, 1/2024 Jarraibidea onartu da, Euskal Autonomia Erkidegoko kontratazio publikoan genero-ikuspegia eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako klausulak txertatzeari buruzkoa. Jarraibide horrek orientabideak eta jarraibideak eskaintzen ditu genero-ikuspegia eta berdintasun-klausulak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren, Administrazio Instituzionalaren eta sektore publikoko gainerako entitateen kontratazio publikoan txertatzeko moduari buruz. Horren guztiaren xedea da laguntza ematea aipatutako Legearen testu bateginean (martxoaren 16ko 1/2023 Legegintza Dekretuaren bidez onartua) kontratazio publikoari buruz xedatutakoa aplikatzeko, bereziki 22. artikuluan dioena. Nolanahi ere, kontratazio publikoa arautzen duen esparruak ezarritakoa errespetatzen dela bermatu beharko da.

Azkenik, 14. artikulua lurralde-ordezkararen eskumenen artean jasotzen du sustatzaileei luzapena emateari buruz ebaztea behin-behineko kalifikazioan ezarritako obren exekuzio-epean, betiere Sailak sustatzen ez dituen babes publikoko etxebizitzetara dagokienez.

Horri dagokionez, esan behar da obretan, exekuzio-epea luzatzea baino gehiago, exekuzio-epea handitzea izan ohi dela –kontzeptu desberdinak dira–, obra-kontratuetan per se ezin baita luzapenik egon (prestazio horiek ezin dira errepikatu).

Kontuan hartuta esandakoa, ALDEKO TXOSTENA ematen zaio Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen dekretu-proiektuari, betiere dekretu-proiektu horren edukia txosten honetan emandako gidalerroen eta aholkuen arabera egokitzen bada.